



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko apirilaren 8a

33. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- 4/2011 Foru Legea, martxoaren 17koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duena. Akats zuzenketa (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Erregeen omenaldia eta Vianako Printzea Nazioarteko sariak banatzeko ekitaldia antolatzeak ekarri dituen gastuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, populazioa zahartzeak ekarriko dituen beharrak aztertzeak adituen batzordearen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Ezgaitasuna duten Pertsonen Nafar Kontseiluaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, garapenerako lankidetzaren arloko laguntza teknikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak pasabide kanadarrak konpontzeko eta aztertzeak darabilen prozedurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak eman dituen “Nafarroa Abalei” buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, 2008-2011 urteetarako Nafarroako Nazioarteko Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Cortesko Carmen Bellido Fundazioaren 2005etik 2009ra bitarteko kudeaketa ekonomikoari buruzko txostena, Comptos Ganberak egin (9. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko. Izendapena (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

4/2011 Foru Legea, martxoaren 17koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duena.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat aurkitu da foru legearen testuan, zeina 2011ko martxoaren 21eko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen. Beraz, zuzendu egin da, horretarako akats zuzenketa argitaratuz.

Foru legeko 246 (bis) artikuluan, hirugarren idatz-zatian, 10. orrialdeko bigarren zutabean, honakoa dioen tokian:

“... aurreko idatz-zatian aipatutako ikasketa tituluren bat eskuratu dela frogatu beharko da,

edota ikasketa horietakoren bati dagokion gradu-titulua edo titulu baliokide bat”

Honakoa behar du:

“... aurreko idatz-zatian aipatutako ikasketa tituluren bat eskuratu dela frogatu beharko da, edo *Enpresa Zientzietako diploma*, edo ikasketa horietakoren bati dagokion gradu-titulua, edo titulu baliokide bat”

Iruñean, 2011ko apirilaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Erregeen omenaldia eta Vianako Printzea Nazioarteko sariak banatzeko ekitaldia antolatzeak ekarri dituen gastuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako Erregeen omenaldia eta Vianako Printzea Nazioarteko sariak banatzeko ekitaldia antolatzeak ekarri dituen gastuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 18ko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abuztuaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera bat (PES-580) aurkeztu zuen 2010eko ekainaren 10ean, Legebiltzarreko erregistroan. Hona erantzuna:

Honakoak dira Nafarroako Erregeen omenaldian eta "Vianako Printzea" Nafarroako Nazioarteko Sariak banatzeko ekitaldian egindako gastuak eta haien egozteko kontusailak:

– NAFARROAKO ERREGEEN OMENALDIA

Kontusaila	Zenbatekoa
B20001 B2200 2261 92100	9.402,47 €

– "VIANAKO PRINTZEA"
NAFARROAKO NAZIOARTEKO SARIAK

Kontusaila	Zenbatekoa
B2400 B20002 2269 921900	28.988,06 €
A0000 A00000 2269 331102	9.663,58 €
91200 900001 2266 143100	23.021,23 € (1)
91500 900001 2266 231004	21.114,54 € (2)

(1), (2) – *Gastu horiek Euskadiko Kutxak eta Nafarroako Kutxak eginiko ekarpenaren bidez finantzatu dira, 2010eko otsailaren 26an eta 2010eko martxoaren 9an, hurrenez hurren, sinaturiko lankidetzak hitzarmenen indarrez.*

Sarien zenbatekoa 40.000 eurokoa da modalitate bakoitzean (horiek ere Nafarroako Kutxarekiko eta Euskadiko Kutxarekiko hitzarmenen bidez kofinantzatuta).

Horixe da azaldu behar dizudana, Iruñean, 2010eko abuztuaren 6an.

Nafarroako Gobernuko eledun eta Erakundeetako Harremanetarako kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, populazioa zahartzeak ekarriko dituen beharrak aztertzeke adituen batzordearen egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du populazioa zahartzeak ekarriko dituen beharrak aztertzeke adituen batzordearen egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko irailaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du populazioa zahartzeak ekarriko dituen beharrak aztertzeke aditu-batzordearen eratzeko egoerari buruz (PES 572-10). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua Nafarroako Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoan jasotako bi azterlan ari da egiten une honetan. Bata, etxean gelditu eta familia zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoek epe laburrera, ertainera eta luzera duten bideragarritasunari eta zerbitzu sozialean duten eraginari

buruzkoa. Bestea, Nafarroan adineko pertsonentzako beste egoitza-eredu batzuk garatzeari buruzkoa.

Bi azterlan horiek bukatutakoan, azterlanen emaitzak kontuan hartuta eta Nazioko Gobernuak mendekotasuna duten pertsonentzako laguntza-aren arloan egiten dituen aldaketak kontuan hartuta, populazioa zahartzeak ekarriko dituen beharrak aztertzeke aditu-batzordearen ezaugarriak ezarriko dira. Horretarako, kontuan hartuko dira talde hori osatu behar duten pertsonen lanbide-profilak eta profesional horien lan-esparrua.

Aditu-batzordea eratzeko, zaharren laguntzan inplikaturik dauden Nafarroako Gobernuko departamentuen lankidetzaren izanaren dugu, bai eta populazioaren zahartze aktiboarekin ez ezik –autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko oinarri gisa ulertuta zahartze aktibo– mendekotasuna duten pertsonentzako laguntzarekin ere lotuta dauden entitateena, enpresa zerbitzu-emateena, gizarte-eragileena eta unibertsitateena ere.

Hortaz, aditu-batzorde hori 2011ko urrian eratu delako aurreikusten da.

Iruñean, 2010eko irailaren 3an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Ezgaitasuna duten Pertsonen Nafar Kontseiluaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Ezgaitasuna duten Pertsonen Nafar Kontseiluaren egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko

ko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko irailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Ezgaitasuna duten Pertsonen Nafar Kontseiluaren egoerari buruz (PES 573-10). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeko 59. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuari dagokio kontseilu hori eratzea, kasuko foru dekretua onetsita.

Halatan, irailaren 23ko 302/2009 Foru Agindua-ren bidez abiatu zen kasuko foru dekretua taxutze-ko prozedura.

Une honetan, herritarrek eta entitateek parte hartzeko prozesua bukatuta, Gizarte Ongizatearen Nafar Kontseiluak foru dekretuaren proiektuari buruzko irizpena eman behar du, zeina nahitaezkoa baita. Kontseiluaren hurrengo bilera urriaren hasieran izanen da.

Izapide hori egiten denean, foru dekretuaren proiektua Nafarroako Gobernuari igorriko zaio, aintzat har dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, garapenerako lankidetzaren arloko laguntza teknikoari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du garapenerako lankidetzaren arloko laguntza teknikoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko uztailaren 2ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko irailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du garapenerako lankidetzaren arloko laguntza teknikoari buruz (PES 593-10). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Lehenengo eta behin, legegintzaldi honetan garapenerako lankidetzaren arloan sinatutako laguntza-kontratuei buruz adierazi beharra dago guztira lau kontratu sinatu direla. Urteko kontratuak izan dira horiek guztiak, eta ondoko datetan formalizatu ziren:

- 2007/10/26
- 2008/07/23
- 2009/06/26
- 2010/06/31

Bestalde, Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak laguntza hori izaten jarraitzeko aukerari buruz adierazi behar dugu erabaki hori aztertzen ari garela une honetan, zenbait inguruabar kontuan hartuta; besteak beste, ondokoak: Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen aldaketa onetsi berriak kudeaketaren arloan izanen duen eragin positiboa, 2011ko aurrekontu-esparrua, eta Nafarroako Lankidetzari buruzko II. Plan Zuzendarian horri dagokionez erabaki daitekeena (plana taxutze fasean da).

Edozein modutan, unitate horren egungo plantilla handitzeko aukerari buruz adierazi behar da Nafarroako Gobernuak gastu publikoa mugapean edukitzeko politika eta austeritate politika baliatze-ko konpromisoa duela, eta egungo langile-plantillak handitzea politika horien aurka egitea litzatekeela zeharo; hain zuzen ere, gastu hori krisi-egoerari aurre egitera eta ekonomia berpizterara bideratzeko politiken aurka egitea.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Nafarroako Gobernuak pasabide kanadarrak konpontzeko eta aztertzeko darabilen prozedurari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak pasabide kanadarrak konpontzeko eta aztertzeko darabilen prozedurari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 10eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du pasabide kanadarrak konpontzeko eta aztertzeko prozedurari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Pasabide kanadarrak obra txiki batzuk dira, abeltzainek eurek egiten dituztenak baldin eta

jabetza pribatuetan badaude; toki entitateek ere egiten dituzte, baldin eta bideetan eta landa-bideetan badaude, toki entitateenak direlako landa-bideen esparruko eskumenak.

Pasabide kanadarren mantentze-lana Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari dagokio, baldin eta pasabideak dauden errepideen titulartasuna Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarena bada. Errepideen Zainketa Zentroi atxikitako langileek berrikusten dituzte pasabide kanadarrak, errepideak zaintzeko ohiko lanen barruan, eta zainketa integraleko lanen programazioan sartzen da horien konponketa, beharrezkoa baldin bada eta lehentasunen eta aurrekontuan dagoen diruaren arabera.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko irailaren 21ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Nafarroako Gobernuak eman dituen “Nafarroa Abalei” buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak eman dituen “Nafarroa Abalei” buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 10eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroa Abala emateari buruz (PES-605). Hona hemen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroa Abalaren esleipen-hartzaileei buruzko beste galdera bati iragan abenduan emandako erantzunean adierazi zen legez, abalen onuradun suertatzen diren enpresen datuak ez dira publikoak; izan ere, Datuak Babesteari buruzko Legearen

esparruan babesturiko informazioa da hori, eta enpresak dira, kasuan-kasuan, beren izena ezagutarazteko eskubideaz baliatzen direnak, betiere legeak ezarritako esparruaren barranean.

Aipatutako erantzun horretan orobat informatu zenez, Nafarroako Gobernuak, prentsa-ohar baten bidez argitaratu aurretik enpresa esleipen-hartzaileko zuzendaritzari galdetzen dio ea prest degoen bere datuak argitara eman ditzagun edo eskubide hori beretzat gorde nahi duen.

Halatan, Nafarroa Abala orain arte baliatu duten hogeit hamar enpresetarik seik eman dute beren izenaren publizitatea egiteko baimena, eta hala jaso da Nafarroako Gobernuak Komunikazio Kabineteak emandako informazio publikoan. Informazio hori Gobernuaren webgunean dago jarrita: <http://www.navarra.es>.

Hona sei onuradunak:

- Mufabrik SL. Gobernuaren erabaki bidez 187.680 euroko abala eman zitzaion 2009ko otsailaren 16an, 312.800 euroko inbertsioa egiteko.
- Otsobiko jauregia zaharberritzea eta eraldatzea. Gobernuaren erabaki bidez 600.000 euroko

abala eman zitzaion 2009ko abuztuaren 31n, 1.259.896 euroko inbertsioa egiteko.

– Sandalio Andrés Monreal (landa hotela Muesen). Gobernuaren erabaki bidez 437.636 euroko abala eman zitzaion 2009ko abuztuaren 14an, 729.394 euroko inbertsioa egiteko.

– Arse Planeamiento SL (turismo aktiboko enpresa Lizason). Gobernuaren erabaki bidez 354.000 euroko abala eman zitzaion 2009ko abenduaren 21ean, 590.000 euroko inbertsioa egiteko.

– Baikor Worldwide SL. Gobernuaren erabaki bidez 544.380 euroko abala eman zitzaion 2010eko maiatzaren 10ean, 907.300 euroko inbertsioa egiteko.

– Embalajes Bretón SL. Gobernuaren erabaki bidez 486.000 euroko abala eman zitzaion 2010eko ekainaren 21ean, 810.000 euroko inbertsioa egiteko.

Iruñean, 2010eko irailaren 17an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, 2008-2011 urteetarako Nafarroako Nazioarteko Planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du 2008-2011 urteetarako Nafarroako Nazioarteko Planari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko irailaren 17ko 90. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Nazioarteko Planari buruz (PES-614). Hona hemen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

2008-2011 urteetarako Nafarroako Nazioarteko Plana exekuzio-fasean da, Gobernuaren 2008ko azaroaren 10eko erabakiaren bidez onetsitako planaren dokumentuan bertan aurreikusitako egutegiari jarraikiz.

Planaren betetze-maila ahalik eta handiena izan dadin, onetsitako dokumentuan sartu zen “2008-2011 urteetarako Nafarroako Nazioarteko Planaren jarraipena eta koordinazioa” izeneko jarduketara, eta Nafarroako Nazioarteko Kontseilua eratzea aurreikusi zen. Nazioarteko planarekin lotuta dauden nafar elkarteek osatzen dute organo hori, eta bere eginkizun nagusia da hobekuntzak proposatzea, muntako informazioa ematea eta ukitutako eragile sozioekonomikoak koordinatzea eta partaide bihurtzea.

Nafarroako Nazioarteko Kontseilua urtean behin biltzen da, Nafarroako Nazioarteko Planean aurreikusitako ekintzen garapen-maila aztertzeko. Lehendabiziko bilera 2009ko azaroaren 10ean

egin zen, plana abian jarri zenetik urtebete pasa zenean.

Bigarren kontseilua heldu den azaroaren 10erako dago aurreikusita, eta orduan berriz ere eginen da balantzea eta azalduko da zer aurrerapauso eman diren ekintzen ezarpenari dagokionez. Nafarroako Nazioarteko Kontseiluak egiten duen balantzetik sortzen den dokumentazioa Parlamentuari igorriko zaio.

Eskueran dugun azken informazioa da, beraz, Nafarroako Nazioarteko Planaren lehenbiziko urteko garapenari buruzkoa (informazioa erantzun honi erantsirik doa).

Iruñean, 2010eko irailaren 17an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Ágora Parlamentu Kudeaketan).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Cortesko Carmen Bellido Fundazioaren 2005etik 2009ra bitarteko kudeaketa ekonomikoari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Comptos Ganberako lehendakariak igorri duen komunikazioa, Cortesko Carmen Bellido Fundazioaren 2005etik 2009ra bitarteko kudeaketa ekonomikoari buruzko txosten bat eskatu izanari buruzkoa, ERABAKI DA:

1. Komunikazio hori jasotzat ematea.

2. Komunikazio hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea, ardurua izan duen auditoreak eginiko txostenarekin batera.

Iruñean, 2010eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Cortesko Carmen Bellido Fundazioaren 2005etik 2009ra bitarteko kudeaketa ekonomikoari buruzko txostena

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, martxoaren 15ean, Comptos Ganberari eskatu zion txosten bat egin zezan Cortesko "Carmen Bellido" Fundazioaren 2005, 2006, 2007, 2008 eta 2009ko kudeaketa ekonomikoari buruz, eta txosten hori erakunde honen lan-programan sartu zen apirilaren 20an lehendakaritza honek emandako ebazpenaren bitartez. Horrenbestez, honakoa adierazi behar dizut, horri dagokionez:

1. Lana egiteko ardurua izan duen auditoreak, 2010eko azaroaren 25eko txostenean, adierazi duen bezala –txosten hori erantsi dizut–, Cortesko "Carmen Bellido" Fundazioa izaera pribatuko entitate bat da eta, horrenbestez, Comptos Ganberari ez dagokio haren kudeaketa ekonomikoa fiskalizatzea. Hori dela eta, ganberaren lana zentratu da Nafarroako entitate publikoek (Nafarroako Gobernu eta Cortesko Udala) fundazio horri emandako diru-laguntzak eta laguntzak egiaztatzeko lanetan.

2. Horri dagokionez, aipatutako txostenean aipatzen dira fundazioak 2005-2009 epean jaso dituen diru-laguntza eta laguntza publikoak, eta ondorioztatzen da munta txikikoak direla.

3. 2010eko ekainean, Nafarroako Gobernuko Gizarte Gaietako Departamentuak 23 toki itundu ditu fundazioarekin, 4 urtetarako. Itun horrek, guztira, 2 milioi euro egiten du. Itun honek indarra duenetik denbora gutxi iragan denez, Comptos Ganberak adierazi nahi dizu ezen, behin zuhurtziazko denbora bat iraganda, Nafarroako Gobernuari buruz egiten dituen azterketa orokorren barrenean, egiaztatu eginen duela itun hori etorkizuneko ekitaldietan betetzen ote den.

Horrenbestez, jaso agur bero bat.

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

TXOSTENA

1. 2010eko martxoaren 15ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak honako erabakia hartu zuen, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eskatuta:

"Nafarroako Comptos Ganberari eskatzea Cortesko Carmen Bellido Fundazioaren 2005etik 2009ra bitarteko kudeaketa ekonomikoari buruzko txosten bat egiteko".

2010eko fiskalizazioko urteko programarekin bat eta Comptos Ganberako lehendakariaren ebazpenez, izenpetzen duen auditoreari esleitu zaio arestian aipatutako fiskalizazio-lana.

2. Fundazioaren jarduna zentratuta dago, funtsean, Cortesko udalerrian dagoen zaharren egoitza baten jabetzan eta kudeaketan.

Egoitzak, guztira, 49 toki dauzka eta haren kudeaketa, 2010eko ekainera arte, guztiz pribatua izan da, Nafarroako Gobernuko Gizarte Gaietako Departamentuarekin tokirik itundu gabe.

3. Fundazio hori arautzen duten estatutuak kontuan izanda eta haren izaera juridikoari buruz-

ko zalantzak zeudenez –publikoa ala pribatua–, txosten hau izenpetzen duen auditoreak Comptos Ganberako aholkularitza juridikoari txosten bat eskatu zion “haren egiazko nortasun juridikoari buruz eta ganbera honek haren kudeaketa ekonomikoa fiskalizatzeko eskumenik izateari buruz”.

Txosten juridiko horretan, honako ondorioak ageri dira:

“Azken batean, jotzen dugu Carmen Bellido Fundazioa ez dela Nafarroako Foru Komunitateko sektore publikoaren parte, eta hortik eratorri behar da ez dela Comptos Ganberaren eskumena fundazio horren kudeaketa fiskalizatzea. Fundazio hori partzialki funts publikoekin finantzatzeko balitz, Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskumena iritsiko litzateke funts publiko horien xedea eta aplikazioa hartzeraino.

4. Aurrekoa kontuan izanda, ganbera honen lana zentratu da Nafarroako foru sektore publikoko entitateek fundazioari emaniko diru-laguntzetan eta bestelako laguntzetan. Horretarako, honakoa aztertu da:

4.1. Nafarroako Gobernuako Gizarte Gaietako Departamentua. Departamentu horren jarduna honakoan zentratu da:

a. Gaur arte, fundazioaren gain, botere publiko-
ei esleitutako tutoretza- eta babes-eginkizunak betetzen ari da departamentua, fundatzaileen borondatea betetzearen berme gisa. Horrenbestez, fundazioak bizi izan duen egoera ekonomiko zaila dela-eta, departamentuak kontrolatu eta baimendu du haren ondarearen zati baten salmenta eta exijitu du fundazioaren organoek saneamendu finantzarioko plan bat onets dezaten, egoitzaren bideragarritasuna ziurtatze aldera.

b. 2005etik 2009ra bitarteko aldian, eta Foru Administrazioarekin lotutako beste edozein egoitza edo zentro pribatutan bezala, departamentuak bertako egoiliarrei eman izan dizkie lege indar-dunetan ezarritako banakako laguntza ekonomiko berak, egoitzako egonaldien kostua zati batean finantzatzeko.

c. 2005ean, departamentuak 39.582,41 euroko diru-laguntza bat eman zuen, egoitzan konponketa-lan batzuk egiteko.

d. 2010eko ekainean, departamentuak eta egoitzak kontratu bat sinatu dute, lau urtez 23 toki ituntzeko, guztira 2 milioi euro ordainduta.

4.2. Cortesko Udala. Udalak gure errekerimenduari emandako erantzunaren arabera, 2005etik 2010era bitarteko aldian, honakoak izan dira udalaren eta fundazioaren arteko harreman finantziarioak:

a. 2005ean, udalaren diru-laguntza izendun bat, egoitza egokitzeko lan batzuk ordaintzeko. Diru-laguntza 15.000 eurokoa da eta kasuko obra-ziurtagiriaren bitartez dago justifikatuta.

a. 2007an, udalak orube bat erosi zion fundazioari, behi-korrale bat jartzeko. 32.487,50 euro ordaindu zizkion.

c. 2005-2010 aldian, hiri kontribuzioaren zergatik salbuetsi da fundazioa, Fundazioen eta babes-jardueren tributu araubidea arautzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeari jarraituz.

5. Laburbilduz, 2005etik 2009ra, horixe baita parlamentu-eskariaren xedea, Cortesko Carmen Bellido Fundazioak 39.582,41 euroko diru-laguntza lortu du Nafarroako Gobernuako Gizarte Gaietako Departamentuaren eskutik, egoitzan konponketa-lan batzuk finantzatzeko.

Epe berean, eta aurreko xede berarekin, Cortesko Udalak 15.000 euroko diru-laguntza izendun bat eman dio fundazioari.

Horren guztiaren ondorioz, izenpetzen duen auditoreak, kontuan izanda, batetik, Carmen Bellido Fundazioa entitate pribatua dela eta, horrenbestez, Comptos Ganberaren eskumen-esparrua mugatuta dagoela lortutako diru-laguntza publiko-
en aplikaziora, eta kontuan izanda, bestetik, zenbat egiten duten aztertutako aldian jaso dituen laguntzek, jotzen du ganbera hau ezin dela txosten honetan emandako informazioaz haratago joan.

Alabaina, Comptos Ganberak, behin zuhurtziazko denbora bat iraganda eta Nafarroako Gobernuari buruz egiten dituen azterketa orokorren barrenean, egiaztatu egingen du fundazioak eta Gizarte Gaietako Departamentuak sinatu zuten ituna betetzen ari ote den.

Iruñean, 2010eko azaroaren 25ean

Auditorea: Ignacio Cabeza del Salvador

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa.

Izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko apirilaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Amaitu da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko itzultzaile lanpostu huts bat betetzeko lekualdatze-lehiaketa. Deialdia argitaratu zen 2011ko urtarrilaren 10eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta 2011ko urtarrilaren 21eko 14. Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Epaimahai kalifikatzaileak gaindituen zerrenda igorri du, zeina 2011ko apirilaren 1eko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baita. Hortaz, deialdiko 8.2 oinarrian ezarritakoa-rekin bat, ondokoa ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko funtzionario izendatzea, teknikarien kidegoko –goi mailako teknikarien eskala– euskara itzultzaile gisa, ondotik adierazten den izangaia:

Irazustabarrena Barriola, Ainhoa

2. Ezartzea interesdunak hamar eguneko epea izanen duela, izendapena jakinarazten zaionetik aitzina, bere karguaren jabetza hartzeko.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2011ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

